

# INGURUGIROAREN

KUDEAKETA

*2000*



**ELA**

EUSKAL SINDIKATUA



# INGURUGIROAREN KUDEAKETA

## Aurkibidea


<b>0. SARRERA</b>	3
<b>A. INGURUGIROA GESTIONATZEKO SISTEMAK</b>	4
<b>A.1.</b> Ingurugiro gestioaren eta auditoretzen EB 1836/3 araudia (EMAS)	4
<b>A.2.</b> Ingurugiro gestioari eta auditoretzari buruzko Europako sistemaren eta ISO 14001 arauaren arteko harremana.	5
<b>A.3.</b> UNE-EN-ISO 14001.	7
<b>B. INGURUGIROA GESTIONATZEKO SISTEMAREN BETEKIZUNAK</b>	8
<b>B.1.</b> Betekizun orokorrak.	8
<b>B.2.</b> Ingurugiro Politika.	8
<b>B.3.</b> Plangintza.	8
<b>B.4.</b> Inplantazioa eta Funtzionamendua.	9
<b>B.5.</b> Egiaztapena eta Ekintza Zuzentzailea.	11
<b>B.6.</b> Berrikuspena, Zuzendaritzaren aldetik.	12



Laguntzaile:  
**EUSKO JAURLARITZA**  
*Ingurugiro Saila*

Esku artean duzun liburuxka, ELAsindikatutik, 2.000. urtean, ingurugiroaren biran, langileen sentsibiltatea, sustatzeko egiten ari garan kanpainaren barnean kokatzen da.

## Sistemak eta baldintzak



### 0.SARRERA

Ingurugiroa gestionatzeko enpresa-sistemak borondatezkoak dira, eta, beraz, sistema horiek abian jartzen ote diren erabakitzea enpresaren zuzendaritza nagusiaren esku dago, ISO arauen aplikazioa legez arautzen ez den bitartean.

Sistema horietako helburuen ardatzak lehiakortasuna, marketina, salmenta,... etab. dira, hau da, helburuak lotuago daude enpresaren emaitza-kontuarekin ingurugiroaren edo lan osasunaren eremuko benetako arazoekin baino.

Langileek ez dute partehartze aktiborik sistema horien abiatze eta gestio lanetan, ezta Lan Arriskuen Legearen bitartez ere.

Gestio tresna horiek oso burokratikoak dira eta eraginkortasun txikikoak; hala ere, sinesgarritasuna eranstean diote enpresari ("ingurugiro izendapena"). Horrek, baina, aurpegia garbitzeko baino ez du balio izaten askotan, ingurugiroa modu egokian gestionatzera zuzendutako politika bat ekarri beharrean.

Herri Administrazioek uko egiten diote ingurugiroa antolatze eta benetan kontrolatzeko duten eginkizun publikoa betetzeari: arau tekniko pribatuen egokitasunaz fidatzen dira, hainbestearino non kasu batzuetan dirulaguntza publikoak ere eskaintzen dituzten autokontrol horiek ezartzeko.

Sistema horien erabilerak lanpostuen baldintzak enpresaren nahierara aldatzera eramaten dute sarritan. Era horretan, lanpostua betetzen eta bertan egiten den zereginaren ezauzgarriak benetan ezagutzen dituzten langileak bazterturik geratzen dira, lan prozesuaren ikuspegi orokorra galduz.

*"Langileek ez dute partehartze aktiborik sistema horien abiatze eta gestio lanetan, ezta Lan Arriskuen Legearen bitartez ere".*

*"Osasunaz eta arriskuen prebentzioaz hitz egiten denean, ez dugu lanpostuarekin eta beraren ingurunearekin zerikusia duten barne giroez soilik hitz egiten; aitzitik, kontzeptu horiek prozesu osora hedatu behar da"*

Osasunaz eta arriskuen prebentzioaz hitz egiten denean, ez dugu lanpostuarekin eta beraren ingurunearekin zerikusia duten barne giroez soilik hitz egiten; aitzitik, kontzeptu horiek prozesu osora hedatu behar dira.

Teknologia zaharkitua duten enpresetan ezinezkoa da kalitate sistema horiek inplantatzea, gisa horretako enpresen estruktura ezin egoki dakiekeelako langileen eta beraien ingurunearen segurtasun beharrei, produktuaren kalitatearen hobekuntzari eta merkatuko lehiari. Prozesu garbiak eskuratzeko, inbertsio handiak egin beharko lirateke teknologia mailan.

Aipatu behar da ISO arauak -borondatezkoak- eta lan arriskuak prebenitzeko legea -derrigorrezkoa- elkarretik bereiztutato atal bezala jorratzen direla, hala Administrazioaren aldetik nola enpresa pribatuaren aldetik. Biek konpartitzen duten osagai bakarra hau da: langileek ez dutela parte hartzen tresna horien definizioan, kontrolean eta jarraipenean.

## **A. INGURUGIROA GESTIONATZEKO SISTEMAK**

Alor hau UNE-EN-ISO 14001 arauaren bidez dago araututa. Izan ere, arau hori da frogak lortzea eta modu objektiboan ebaluatzea ahalbidetzen duen egiaztatze-prozesu sistematiko eta dokumentatua, baita erakunde batek ingurugiroa kudeatzeko duen sistemak bertan ezarri diren auditoretza-irizpideak betetzen ote dituen jakiteko eta prozesu horren emaitzak zuzendaritzari jakinarazteko bidea ere.

### **A.1. Ingurugiro gestioaren eta auditoretzen EB 1836/3 araudia (EMAS)**

Europako Batasunak 1993ko ekainaren 29an onartu zuen araudi hori. Beraren bidez, sektore industrialeko enpresek aukera dute Ingurugiro Gestioari eta Auditoretzari buruzko Europako Sistema bati euren borondatez atxikitze. Sistema hori 1993ko uztailaren 13an sartu zen indarrean, eta 1995eko apiriletik aurrera irekita dago industriarentzat. Araudi hori

ingurugiroaren eremuan enpresek dituzten tresna nagusietako bat da, beraren bidez diseina baititzakete euren jarduerak ingurugiro arloan dituzten emaitzak kontrolatzeko eta era sistematikoan neurtzeko sistemak.

Gestio tresna bat da, erakundearen, gestio sistemaren eta ingurugiroa babestera zuzendutako prozesuen eraginkortasuna aldizka eta modu sistematikoan, dokumentatua eta objektiboan ebaluatzen duena. Bere xedek hauexek dira:

- Ingurugiroa babestera zuzendutako politikak, programak eta gestio sistemak eskaintzea enpresei, euren lantokietan ezarri eta erabil ditzaten.
- Elementu horien errendimendua aldizka eta modu sistematiko eta objektiboan neurtzea.
- Enpresek ingurugiro arloan duten jokatibideari buruzko informazioa eskaintzea gizarteari.

Ingurugiro gestioari eta auditoretzari buruzko Europako sistema (EMAS) bat dator Ingurugiroaren eremuko Ekintzarako bosgarren Programaren funtsezko printzipio batzuekin, hain zuzen ere tresna gehiago eskaintzeko eta erantzukizun konpartitua bultzatzeko ideiekin, ingurugiroa babesteari dagokionez. Sistema hori Europako Batasuneko jardura ekonomikoen sailkapenean sartuta dauden jardura industrial jakin batzuetara zuzentzen da: erauzketa eta manufaktura sektoreetako industrietara, alegia.

EMAS araudia merkatuko tresna bat da, norberaren borondatez parte hartzea ahalbidetzen duena. Horrek esan nahi du sistemaren oinarria ez dela ohiko neurriak nazio bakoitzeko aginte arautzaileen arabera aplikatzea; aitzitik, bilatzen duena da enpresen arteko lehiak eta hornikuntza-katearen presioak enpresak parte hartzera bultzatzea.



## A.2. Ingurugiro gestioari eta auditoretzari buruzko Europako sistemaren eta ISO 14001 arauaren arteko harremana.

Europako EMAS sistemak ingurugiroa gestioatzeko sistema bat abia dezatela eskatzen die sistemari parte hartzen duten enpresei. Sistema eratu zenean ez zegoen ingurugiroa gestio- natezari buruzko nazioarteko arauak. Nolanahi ere, 1996ko irailaren 1ean, Araudia indarrean sartu zenetik hiru urte iragan zirenean, Nazioarteko Normalizazio Erakundeak ISO 14001 Araua onartu zuen. Arau hori izango zen aurrerantzean ingurugiroa gestioatzeko sistemak nazioartean arautuko zituen.

Arau hori mundu osoan aplikatu daiteke, eta ekonomiarik sektore guzientzat dago irakita. ISO arauaren aplikazio eremua, beraz, EMAS sistemarena baino askoz ere zabala da, leku eta sektoreei dagokienez. Hala eta guztiz ere, ez ditu Europako sistemaren betekizun guztiak barne hartzen, batez ere akre- ditutako aditu baten bidez egiaztatutako ingurugiro adieraz- pena argitaratzeko beharra eta ingurugiroari buruzko legedia betetzeko beharra.

1997ko apirilaren 16an Batzordeak hartu zuen Erabaki baten bidez, ISO 14001 arauari betekizunekin baliozko diren elementuak onartu egiten ziren. Horren xedea enpresen lana erraztea da: ISO 14001 egiaztatzen Europako sistemari erregistratzeko abiapuntutzat hartzeko aukera es- kaintzen die, lan bikoitza egin behar izan ez dezaten. Orain dela gutxira arte pentsatzen genuen ISO 14001 eta EMAS prozedura desberdin eta aukerakoak zirela. Eskura dugun informazioak, baina, zera erakusten du: enpresa batzuk sistemari erregistratu eta ISO egiaztatzen eskuratu badute ere, Araudari atxikitako lantokien erdiek baino gehiagok Europako sistemari erregistratzea erabaki dute. Hortaz, badirudi bi sistemak ez direla osagarritzat hartzen, eta, beraz, bietako bat hautatu behar dela.

Europako sistema horrek alderdi ekonomikoak eta inguru- giroaren eremuak hartzen ditu kontuan, izan ere, industriak bere xedeak ezar ditzake ingurugiroari lotutako gaietan, ingurugiroari ekartzen dizkioeten eraginak aztertuz eta gero, Era horretan, industriak bere parametro ekonomikoaren barnean jorra ditzake ingurugiroaren gaiak. Halaber, sistemak sinetsga- rritasuna eta gardentasuna azpimarratzen ditu. Beraren aplikat- zioa modu independentean egiaztatzen da, ingurugiroa aztertzeko akreditatua dagoen aditu baten bidez.

Horrenbestez, ingurugiroa babestera zuzendutako planteamendu berrak bat da: merkatuko mekanismoak erabiltzen ditu, eta, aldi berean, ingurugiroa sartzeko du faktore gisa enpresen gestioan. Araudiak tresna bat eskaintzen die sektore industrialari dihardutenei, ingu- rurugiroaren gestioa modu egokian bidera dezaten. Ingurugiro gestioari eta auditot- retzari buruzko Europako sistemaren osagai nagusiak hauek dira:

- Ingurugiroaren eremuko emaitzak hobetzea.
- Ingurugiroari buruzko araudia bete egiten dela erakustea.
- Ingurugiroaren eremuan eskuratutako lorpenak iritzi publikoari jakinaraztea.
- Europako sistema horretan parte hartzeak zera eskatzen dio enpresari:
  - Ingurugiro mailan duen politika definitzea.
  - Ingurugiroan sortzen duen eragina eta eremu horretan dituen emaitzen berraztertzea.
  - Ingurugiroari buruzko programa bat eta ingurugiroa gestio- natezko sistema bat antolatzea.
  - Ingurugiro auditoretzarak egitea.
  - Ingurugiroari buruzko adierazpen bat aurkeztea.




Orobat, garrantzitsua da jakitea EMAS sistema ISO 14001 Araua "baino haratago" doala. Sistema hori, beraz, ISO egiaztapena hobetzen duen aurrerapen bat da: sinesgarritasun handiagoa ematen die ISO 14001 sistemako elementuei, legedia betetzeari, errendimendua hobetzeari eta kanporako jakinarazpenari dagokienez.

## MAS ETA ISO 14001 ARAUAREN ARTEKO ERLAZIOA E.B. 1836/93 ARAUDIA

(industriagintzarako bakarrik)

GOIZUZENDARITZAREN KONPROMISOA

AURREKO ERREBISIOA




### A.2.1. Honako gai hauetan, ISO 14001 Arauak kontuan hartzen ez dituen betekizunak ezartzen ditu EMASek:

- ISO 14001 Arauak ez du ezer esaten auditoretzen maiztasunei. EMASek, berriz, hiru urtetan behin egin behar direla dio.
- EMASen arabera derrigorrez egin behar den ingurugiro-berrazterketa ez dago zehaztuta ISO 14001ean; beronek berrazterketa gomendatzea baino ez du egiten, eta, gainera, SGMatik kanpo.
- Ingurugiroari buruzko informazioa aginteei eta herritarrei jakinaraztea EMASen soilik da beharrezkoa; ISO 14001ean, ordea, ez da betekizun hori ageri.
- Erakundearen betebeharrak kontratistentzat ere dira bete beharrezkoak, lantokian lan egiten dutelako. Betekizun hori derrigorrezkoa da EMASen, baina ISO 14001ean ez da ageri.

### A.2.2. ISO 14001aren eta EMASen arteko korrespondentzian argitu behar diren gaiak.

- ISO 14001 Arauaren "erakundea" terminoak barne hartzen du EMASen definitutako kokagunea, enpresa, jarduera industrialia eta erakundea.
- Legezko eta arauzko xedapenak betetzea derrigorrezkoa da EMASentzat; ISO 14001 Arauak, berriz, xedapen horiek betetzeko konpromisoa eta betetze hori aldizka eta modu dokumentatuan neurtzeko prozedurak soilik eskatzen ditu.
- Segurtatu behar da ingurugiroari buruzko programak egitasmoen arabera bereiztuta daudela, EMASek behartzen duen bezala; ISO 14001 Arauak, berriz, ingurugiroari buruzko programak ezartzeko beharra ingurugiroaren gestioa garrantzitsua denean soilik ezartzen du.
- Segurtatu behar da ingurugiroaren eremuko xedeak neur-



garriak eta praxira eramateko modukoak direla, EMASek dioen bezala. Izan ere, ISO 14001aren arabera espezifikoa eta neurgarriak baino ez dira izan behar.

### **A.2.3. ISO 14001etik kanpo dauden eta EMASek eskatzen dituen gaiak.**

- Ingurugiroari buruzko adierazpena prestatzea.
- SGMA eta ingurugiroari buruzko adierazpena egiaztatzea.
- Eskumenak dituen aginteak ingurugiroari buruzko adierazpena egiaztatu behar du; gero, hiritarrei jakinarazi behar zaie.

### **A.2.4. Zein eskema aukeratu behar da?**

- ISO 14001 dokumentu argiagoa da, hobeto dago egituratuta eta errazago aplikatzen da. Kalitatea Seguratzeko Sistema bat jadanik abiatu duten enpresek nahiago duten eskema da.

- EMAS sektore industrialean soilik aplikatzen da, eta, hortaz, jarduera ugari kanpo geratzen dira. Nolanahi ere, jarduera pilotuak egin dira sistema hori beste sektore batzuetara eramateko, hala nola turismo sektorera.

- Aipatu beharrekoa da Europako Kontseiluko Ingurugiro Taldea EMASen Araudia aldatzera zuzendutako proposamen bat aztertu eta eztabaidatzen ari dela, beraren garapena eta inplantazioa hobetzeko xedez. Proposatu diren aldaketak oso garrantzitsuak dira Europako sistema horrentzat; alde batetik, garapen jasangarriaren alde hobeki jardun dezan, eta, bestetik, lehiakortasun industrialaren ahalmenari eusteko. Horren bitartez, modu eraginkorrean osatu nahi dira ingurugiroari buruzko politikak planteatzen dituen agintea eta kontrola. Alde horretatik, proposamenaren osagai nagusiak hauexek dira:

• EMASen esparrua hedatu egin behar da, ingurugiroan eragin nabarmenak sortzen dituzten erakundeetara eramateko.

- ISO 14001 Araua integratu behar da, EMASen ingurugiro gestioaren betekizun gisa.
- Langileek parte hartu behar dute EMASen aplikazioan.
- Enpresa Txiki eta Ertainek partehartze handiagoa izan behar dute; horretarako, laguntza tresna batzuk garatzen dira.
- Logotipo bat sortu behar da, ikusgarria eta erraz ezagutzeko modukoa.
- Erakundeek ingurugiro mailan egindako hobekuntzen jarraipena indartu egin behar da.
- Europako sistemak ingurugiroa gestionatzeko beste sistema batzuen aldean duen balio erantsia bultzatu behar da.
- Araudia modu koherenteagoan aplikatu behar da EBko estatuetan.

## **A.3. une-EN-ISO 14001 araua**

Erakunde asko hasi dira euren jarduerak ingurugiroaren ikuspuntutik berraztertzen edo auditoretzak egiten, eremu horretan duten jokabidea ebaluatzen xedez. Hala eta guztiz ere, berrazterketa eta auditoretza horiek ez dira -berez-nahikoak izaten erakundearen jarduerak legediaren eta beronen politikaren betekizunak betetzen dituela eta betetzen jarraituko dituela bermatzeko. Izan ere, eraginkorrak izateko gestio sistema egituratu eta integratu baten barruan egon behar dute, enpresaren gestioak barne hartzen dituen gainerako jarduera guztiekin batera.

Ingurugiroa gestionatzeari buruzko nazioarteko arauen xedea erakundeek sistema eraginkor baten tresnak eskaintzea da, gestioaren beste tresna batzuekin integra ditzaten, eta, horri esker, enpresentzat errazagoa izan dadin ingurugiroaren eremuko helburuak eta helburu ekonomikoak lortzea.

EN ISO 14001 Nazioarteko Arauak -Ingurugiroa Gestionatzeko Sistemak, Espezifikazioak eta beraien Erabilerarako Argibideak- zehaztu egiten ditu ingurugiroa gestionatzeko sistemak bete behar dituzten betekizunak, kontuan hartuta

*"Gestio tresna bat da, erakundearen, gestio sistemaren eta ingurugiroa babestera zuzendutako prozesuen eraginkortasuna aldizka eta modu sistematikoan, dokumentatua eta objektiboan ebaluatzen duena"*

*"Europako sistema horrek alderdi ekonomikoak eta ingurugiroaren eremukoak hartzen ditu kontuan; izan ere, industriak bere xedeak ezar ditzake ingurugiroari lotutako gaietan, ingurugiroari ekartzen dizkieten eraginak aztertu eta gero"*

horren helburua ingurugiroaren eremuko politika eta helburuak formulatzea dela, eta, halaber, helburu horiek betetzea eta bete egiten direla herritarrei erakustea, legezko eskakizunak eta neurri handiko ingurugiro eraginei buruzko informazioa aintzakotzat hartuta. Araua aplikatzen da erakundeak kontrola ditzakeen ingurugiro-alderdietan eta beraren eraginpean egongo bide diren alderdietan. Beraz, ez du ingurugiroaren eremuan jardutera zuzendutako irizpide espezifikorik.

Sistemaren arrakasta erakundearen (enpresaren) mailen eta funtzioen konpromisoaren menpe dago, batez ere gai zuzendaritzaren konpromisoaren menpe. Nazioarteko arau hori edozein erakundek aplikatu dezake, honako hau lortu nahi baldin badu:

- Ingurugiroa gestionatzeko sistema bat ezarri, eguneratu eta hobetu.
- Bere jarduera eta deklaratu duen ingurugiro politika bat datozela segurtatu.
- Egokitasun hori hirugarren pertsoneri erakutsi.
- Ingurugiroa gestionatzeko duen sistema kanpo erakunde baten bidez egiaztatu/erregistratu.
- Bere burua ebaluatu (autoebaluazioa) eta nazioarteko arau hori betetzen duela adierazi (autodeklarazioa).

Nazioarteko Arau horretako betekizun guztien helburua ingurugiroa gestionatzeko erabiltzen den edozein sistematan txertatzea da, ingurugiroaren babesa eta kutsaduraren prebentzioa behar sozioekonomikoekin modu orekatuan elkartzea oinarritzat harturik. Beraren aplikazioaren neurria hainbat faktoreren menpe dago, hala nola erakundearen ingurugiro politika, beraren jardueren nolakotasuna eta beraren zereginaren baldintzak. Nazioarteko Arau horren aplikazio guztien neurria eta hedadura zehaztasunez identifikatu behar dira.

## **B. INGURUGIROA GESTIONATZEKO SISTEMAREN BETEKIZUNAK**

### **B.1. Betekizun orokorrak.**

Erakundeak ingurugiroa gestionatzeko sistema bat ezarri behar du eta etengabe eguneratu.

### **B.2. Ingurugiro Politika**

Erakundearen goi zuzendaritzak erakundearen ingurugiro politika definitu behar du; horri dagokionez, honako hau segurtatu behar du:

- Politika hori egokia dela bere jarduera, produktu edo zerbitzuen izaera, neurri eta ingurugiro eraginetarako.
- Etengabeko hobekuntzak egiteko eta kutsadura prebenitzeko politika hartzen duela barne.
- Aplikatzekoak diren ingurugiro legedia eta araudiak betetzeko konpromisoa hartzen duela barne, baita erakundeak sinatzen dituen gainerako betekizunak betetzeko konpromisoa ere.
- Ingurugiroarekin zerikusia duten helburuak eta xedeak ezartzeko eta berraztertzeke esparrua ematen duela.
- Dokumentaturik, ezarriarik eta eguneraturik dagoela eta langileei horren berri ematen zaiela.
- Jendearen esku dagoela.

### **B.3. Plangintza.**

#### ***B.3.1. Ingurugiroaren eremuko alderdiak.***

Erakundeak bere jarduera, produktu edo zerbitzuen ingurugiro-alderdiak identifikatzea ahalbidetzen dizkieten prozedurak ezarri eta eguneratu behar ditu, kontrolpean izan ditzakeen edo beraren eraginpean egon daitezkeen alderdien





kasuan, ingurugiroan eragin larria dutenak edo izan ditzaketenak zein diren determinatzeko. Erakundeak segurtatu behar du eragin larri horiekin zerikusia duten alderdiak kontuan hartzen direla bere ingurugiro xedeak ezartzen dituenean. Erakundeak eguneraturik eduki behar du informazio hori beti ere.

### **B.3.2. Legezko Betekizunak eta beste zenbait Betekizun.**

Erakundeak legezko betekizunak eta arau gisa onartzen dituen gainerako betekizunak identifikatzea eta ezagutzea ahalbidetzen duen prozedura bat ezarri eta eguneratu behar du, bere jarduera, produktu edo zerbitzuen ingurugiro-alderdiei aplika dakizkiekeen betekizunen kasuan.

### **B.3.3. Xedeak eta Helburuak**

Erakundeak ingurugiro xede eta helburuak ezarri eta dokumentaturik eduki behar ditu, erakundearen barnean garrantzia duten funtzio eta maila guztietarako. Helburu horiek ezartzen eta berraztertzen direnean, erakundeak hainbat faktore hartu behar ditu kontuan: legezko eta bestelako betekizunak; beraien ingurugiro-alderdi esanguratsuak; aukera teknologikoak; finantza, operazio eta negozio mailan dituzten eskakizunak; eta interes-

atutako alderdien iritziak.

Xede eta helburuek bat etorri behar dute ingurugiroari buruzko politikaren ardatzekin, kutsadura prebenitzeko konpromisoa barne hartuta.

### **B.3.4. Ingurugiroa Gestionatzeko Programa(k).**

Erakundeak programa bat edo programa batzuk ezarri eta eguneratu behar du/ditu bere xedeak eta helburuak eskuratzeke. Programa horrek honako hau hartu behar du barne:

- Xedeak eta helburuak erakundearen funtzio eta maila garrantzitsu bakoitzean lortzeko arduradunak nortzuk diren zehaztu.
- Xedeak eta helburuak lortzeko baliabideak eta denbora-erpeak zehaztu.

Egitasmo batek zerikusia baldin badu garapen berriekin eta jarduera, produktu edo zerbitzu berriekin edo aldatuekin, ezinbestekoa izango da programa edo programak aldatzea, behar den puntuetan, ingurugiroaren gestioa egitasmo horietan aplikatzen dela segurtatzeko.

## **B.4. Inplantazioa eta Funtzionamendua.**

### **B.4.1. Egitura eta Erantzukizuna.**

Funtzioak, erantzukizunak eta agintea definituta eta dokumentatuta egon behar dira, eta, gainera, horren inguruko informazioa eskaini behar da, ingurugiro gestioaren eraginkortasuna bultzatzeko. Zuzendaritzak eskura jarri behar ditu ingurugiroa gestionatzeko sistema eratzeke eta kontrolatzeko beharrezkoak diren baliabideak. Baliabide horiek bai giza baliabideak eta ezagutza espezializatua eta bai baliabide teknologiko eta finantzarioak dira.

Erakundearen goi zuzendaritzak ordezkari espezifiko bat edo batzuk izendatu behar ditu horri lotutako eginkizunak betetzeko. Ordezkari horiek definituta eduki behar dituzte euren funtzioak, agintea eta erantzukizuna, beste ardua batzuk baztertu gabe, honako helburu hauekin:

- Segurtatu behar dute ingurugiroa gestionatzeko sistemaren betekizunak ezarrita, txertatuta eta eguneratuta daudela, Nazioarteko Arauarekin bat etorritik.
- Ingurugiroa gestionatzeko sistemaren funtzionamenduaren berri eman behar diote goi zuzendaritzari, sistema berraztertzeke eta hobetzeko.

### **B.4.2. Prestakuntza, Sentsibilizazioa eta Gaitasun Profesionala.**

Erakundeak zehaztu behar ditu prestakuntza mailan dituen

beharrak. Euren lanpostuen edukiagatik ingurugiroari kalte nabarmena egin diezaioketen langile guztiek prestakuntza egokia jasotzen dutela bermatu behar da. Erakundeak prozedura egokiak antolatu eta eguneratu behar ditu, bere langileek edo maila zein funtzio garrantzitsuak dituzten pertsona guztiek honako hau jakin dezaten:

- Ingurugiro politika eta ingurugiroa gestionatzeko prozedura eta betekizunak betetzea oso garrantzitsua dela.
  - Euren jarduerak ingurugiroari egiten dizkieten edo egin diezazkioketen kalteak ezagutu behar dituzte, baita norberaren jokabideak ingurugiroa hobetzeko balio dezakeela ere.
  - Ingurugiroaren eremuko politika eta prozedurak bete ahal izateko euren funtzioak eta erantzukizunak zein diren jakin behar dute, baita ingurugiroa gestionatzeko sistemaren betekizunak zein diren jakin ere, larrialdi aurre egiteko prestakuntza eta gaitasuna izateaz batera.
  - Zehaztutako funtzionamendu prozedurak ez erabiltzeak ekar ditzakeen ondorioak zein diren jakin behar dute.
- Ingurugiroari kalte larriak egin diezazkioketen eginkizunak gauzatzen dituzten langileek gaitasun profesional egokia izan behar dute, hau da, prestakuntza eta esperientzia nahikoak.

#### **B.4.3. Komunikazioa**

Ingurugiroaren eremuko alderdiei eta gestio sistemari dagokienez, ondoren aipatuko diren xedeak betetzera zuzendutako prozedurak sortu eta mantendu behar ditu erakundeak:

- Erakundearen barneko maila eta funtzioak komunikatuta egon behar dira elkarren artean.
- Erakundetik kanpoko alderdi interesatuek bidaltzen dituzten komunikazio garrantzitsuak jaso, dokumentatu eta erantzun behar dira.

Erakundeak kanpo komunikazioak gauzatzeko prozedurak hartu behar ditu kontuan ingurugiroarekin zerikusia duten alderdietan, baita hori egiteko erabakia erregistratu ere.

#### **B.4.4. Ingurugiroa Gestionatzeko Sistemaren Dokumentazioa.**

Erakundeak prest eta eguneraturik izan behar du -paperean edo formatu elektronikoa- honako informazio hau:

- Gestio sistemaren funtsezko osagaiak eta beraien arteko loturak deskribatzen dituen informazioa.
- Erreferentziako dokumentazioaren inguruko orientabideak.

#### **B.4.5. Dokumentazioaren Kontrola.**

Erakundeak eratu eta eguneratu behar ditu Nazioarteko Arau horrek eskatzen dituen dokumentazio guztia kontrolatzeko, honako hau segurtatzeko:

- Dokumentazio hori aurki daitekeela.
- Aldizka aztertzen dela, behar denean berraztertzen dela, eta baimendutako langileek onartu egiten dutela.

Dokumentu egokien bertsio eguneratuak eskura egongo dira ingurugiroa gestionatzeko sistemaren funtzionamendu eraginkorrerako funtsezkoak diren lanak egiten diren leku guztietan. Zaharkitutako dokumentuak berehala kenduko dira erabilera edo banaketa puntu guztietatik, edo, bestela, modu desegokian erabiltzen ez direla segurtatuko da. Nolanahi ere, legearekin zerikusia duten helburuetarako edo informazioa gordetzeko xedez ezabatzen ez diren dokumentu zaharkituak modu egokian identifikatuko dira.

Dokumentazioa irakurterraza izan behar da, eta bere data erakutsi behar du argi eta garbi, erraz identifikatu ahal izan dadin; gainera, modu ordenatuan gorde behar da, garai espezifikoaren arabera artxibaturik. Agiri bakoitza prestatzeari eta aldatzeari dagozkion prozedurak eta erantzukizunak ezarri eta eguneratu behar dira.



#### **B.4.6. Operazioen Kontrola.**

Erakundeak identifikatu behar ditu identifikatutako ingurugiro-alderdi garrantzitsuekin lotuta dauden operazio eta jarduera guztiak, bere politika, xede eta helburuen arabera. Erakundeak jarduera horiek antolatu behar ditu, mantenimen-dua barne hartuta, zehaztutako baldintzetan egiten direla bermatzeko, hots:

- Prozedura dokumentatuak antolatu eta eguneratu behar ditu, dokumentaziorik ez egoteak ingurugiroaren eremuko

politika, xedeak eta helburuak desbidera daitezkeen egoeretan.

- Operazio-irizpideak ezarri behar ditu prozeduretan.

- Erakundeak erabiltzen dituen ondasun eta zerbitzuen ingurugiro-alderdi garrantzitsuei buruzko prozedurak antolatu eta eguneratu behar dira. Horrez gain, erakundeak prozedura eta betekizunen berri eman behar die hornitzaileei eta subkontratistei.

#### **B.4.7. Larrialdi Planak eta Erantzuteko Gaitasuna.**

Erakundeak istripuak eta larrialdiak identifikatzeko eta kasu horietan erantzuteko prozedurak antolatu eta eguneratu behar ditu, gertaera horiek ingurugiro

mailan ekar ditzaketen eraginak prebenitzeko eta moteltzeko. Orobat, beharrezkoa denean, bere larrialdi planak eta erantzun prozedurak berraztertu behar ditu, batez ere istripuak edo larrialdiak gertatu ondoren. Bukatzeko, prozedura horien eraginkortasuna egiaztatu beharko du aldizka, ahal duenean.

### **B.5. Egiaztapena eta Ekintza Zuzentzailea.**

#### **B.5.1. Jarraipena eta Neurketa.**

Erakundeak prozedura dokumentatuak antolatu eta

eguneratu behar ditu, ingurugiro mailan eragin nabarmena izan dezaketen operazio eta jardueren ezaugarri nagusiak aldizka kontrolatzeko eta neurtzeko. Horren barnean hauxe sartzen da: funtzionamenduaren jarraipena jasotzen duen dokumentazioaren erregistroa, operazio-kontrol nagusien erregistroa, eta hori guztia erakundeak ingurugiro mailan ezarri dituen xede eta helburuekin bat datorrela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Ikuskatzeko erabiltzen diren tresnak kalibratuta eta egoera onean egon behar dira, eta prozesu horren erregistroak erakundearen prozeduren arabera gorde behar dira. Erakundeak, berriz, bere jardueren ingurugiro mailan bete behar dituzten legeak eta araudiak betetzen direla aldizka ebaluatzeko prozedura dokumentatu bat eratu eta eguneratu behar du.

#### **B.5.2. Araua Ez Betetzea, Ekintza Zuzentzailea eta Prebentzio-Ekintza.**

Araua betetzen ez den kasuetan, erakundeak prozedurak eratu eta eguneratu behar ditu arau-hauste horiek nork ikertu eta kontrolatu behar dituen erabakitzeko; aldi berean, sortutako eraginak moteltzera zuzendutako ekintzak gauzatu behar ditu, eta, halaber, ekintza zuzentzaileak eta prebentziozkoak gauzatzera zuzendutako prozedurak hasi eta osatu.

Arau-hausteen arrazoiak ezabatzeko hartzen diren ekintza zuzentzaile edo prebentibo guztiak egokiak izan behar dira, neurri-aldetik, detektatutako arazoetarako eta ingurugiro mailan sor daitezkeen eraginerako. Gainera, neurri zuzentzaile eta prebentibo horien ondorioz egin behar diren aldaketak antolatu eta erregistratu behar dira erakundearen prozedura dokumentatuetan.

#### **B.5.3. Erregistroak.**

Erakundeak ingurugiro-erregistroak identifikatzeko, gordetzeko eta ezabatzeko prozedurak antolatu eta eguneratu behar ditu. Erregistro horiek barne hartu behar dituzte pres-takuntzarekin zerikusia duten erregistroak eta auditoretza eta

*"ISO 14001 dokumentu argiagoa da, hobeto dago egituratuta eta errazago aplikatzen da. Kalitatea Seguratzeko Sistema bat jadanik abiatu duten enpresek nahiago duten eskema da"*

## "EN ISO 14001 Nazioarteko Arauak -Ingurugiroa Gestionatzeko

*Sistemak, Espezifikazioak eta beraien Erabilerarako Argibideak- zehaztu egiten ditu ingurugiroa gestionatzeko sistemek bete behar dituzten betekizunak, kontuan hartuta horren helburua ingurugiroaren eremuko politika eta helburuak formulatzea dela, eta, halaber, helburu horiek betetzea eta bete egiten direla herritarrei erakustea, legezko eskakizunak eta neurri handiko ingurugiro eraginei buruzko informazioa aintzakotzat hartuta"*

berrikuspenen emaitzak. Ingurugiro-erregistroak irakurterrazak eta erraz identifikatzeko modukoak izan behar dira, eta hala jarduerarekin nola produktu edo zerbitzuekin izan dezakete zerikusia. Ingurugiro-erregistroak modu egokian gorde behar dira, erraz aurkitu ahal izan daitezen, eta babestuta egon behar dira kalterik izan ez dezaten edo apurtu edo galdu ez daitezen. Denbora-tarte batez gordeta egon behar dutenez, denbora-tarte hori zein den erabaki eta erregistratu behar da.

### **B.5.4. Ingurugiroa Gestionatzeko Sistemaren Auditoretza.**

Erakundeak eguneraturik izan behar ditu ingurugiroa gestionatzeko sistemari buruzko auditoretzak aldizka egingo direla bermatzen duten programak eta prozedurak. Hona hemen horren xedea:

- Jakitea ea ingurugiroa gestionatzeko sistemak: a) betetzen ote dituen ingurugiroa gestionatzeko antolatu diren planak, Nazioarteko Arau honen betekizunak barne hartuta, eta b), ea sistema modu egokian ezarri eta mantendu ote den.
- Auditoretzaren emaitzak zuzendaritzari jakinaraztea.

Erakundearen auditoretza programa, beraren plangintza barne, inplikaturako jarduerak ingurugiro mailan duen eraginaren garrantzian eta aurreko auditoretzen emaitzetan oinarritu behar da. Prozedura horiek ondo osatuta egon daitezen ezinbestekoa da auditoretzaren neurria, maiztasuna eta metodologiak barne hartzea, eta, halaber, erantzukizunak eta auditoretzak egiteko eta haien emaitzen berri emateko betekizunak.

### **B.6. Berrikuspena, Zuzendaritzaren aldetik.**

Erakundearen goi zuzendaritzak ingurugiroa gestionatzeko sistema berrikusi behar du aldizka. Maiztasun hori nahikoa izan behar da sistema egokitzeko eta haren eraginkortasuna bermatzeko.

Zuzendaritzak egin behar duen berrikuspen prozesuak segurtatu behar du ebaluazio hori egiteko beharrezkoa den

informazio guztia biltzen dela. Berrikuspen horrek dokumentatuta egon behar du.

Zuzendaritzaren berrikuspenak kontuan izan behar du beharrezkoa izan daitekeela aldaketak egitea, hala ingurugiroari buruzko politikan nola beraren xedeetan eta ingurugiroa gestionatzeko sistemaren beste elementu batzuetan, sistemaren auditoretzaren emaitzek hala eskatzen dutelako, egoera aldatu delako edo etengabeko hobekuntzaren aldeko konpromisoari eutsi behar zaiolako.

